



ALEA

arabako aldizkaria



PEDRO ELOSEGI

**"GARRANTZITSUA DA
ARABARREK BATZAR
NAGUSIAK EZAGUTZEA"**



"Botikak ere euskal hiztunengana heldu nahi du"

IÑIGO PUENTE PUENTE FARMACIA, IRAGARLEA

Zergatik erabaki duzu ALEAn iragarkia jartzea? Hasiera batean Aleakidea nintzen, irakurlea, eta behin iragarkia jartzeko proposamena eskaini zidaten. Nire ekarpena egin eta proiektuari laguntzeko aukera ona izango zela uste nuen.

Zer eskaintzen dio ALEAk zure farmaziari beste hedabideetan aurkituko ez duzuna?

Irakurtzen dutenen artean euskal hiztunak daude, euskaldunetara heltzen zaizkie bertako albisteak, eta gure botikak ere lagun horienengana heldu nahi du.

Nondik hasten zara irakurtzen?

Normalean hasieratik hasten naiz eta begiratu azkar bat ematen diot. Gero ezagunen bat ikusten badut horra jotzen dut aldizkarian...

Gasteiz eta Araba txikiak dira eta denok ezagutzen dugu elkar.



ALEA 200

2019-07-05 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

E. LANAO

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Arabako Errioxako musika bandei, aitorza.
- 8 **Protagonista.** Pedro Elozegi, Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria.
- 12 **Iritzia.** Oier Llinas Villasante, 'Oporrak'.
- 13 **Gutuna.** Euskal Eskola Publikoaren aldeko Gasteizko Plataforma.
- 14 **Sarean.** #FreeCarola.
- 15 **Iruditan.** Auzo igerilekua jarri dute Gasteizko Alde Zaharrean.
- 16 **Gizarte.** Ardo botiletan iruzurra atzemateko sistema garatu du EHUk.
- 17 **Gizarte.** Zanbranan, Berantevillan eta Urizaharrean, mediku bakarra.
- 18 **Esanak eta laburrak.**
- 20 **Ondarea.** 'Ondare irekia', elizak barrutik ikusi ahal izateko egitasmoa.
- 22 **Kultura.** Negu Karlsson idazleari elkarrizketa.
- 24 **Kultura.** GEU elkarteak boluntario bila dabil.
- 25 **Kultura.** I. Euskal Sagardo Araba jaialdia prestatu dute.
- 26 **Kultura.** Nuria Gonzalez fotokazetariaren erakusketa, Saharari buruz.
- 27 **Gure bazterrak.** Kontrasta.
- 28 **Denbora-pasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Oier Llinas Villasante.



Tronboi hotsek elkartutako eskualdea

Musika bandek Arabako Errioxan izan duten bilakaera aztertu eta horri eusteko gakoak azaleratzeko, 'Mas allá de las bandas de música de Rioja Alavesa' liburua aurkeztu du Eduardo Moreno banda zuzendariak. Elkarbizitzaren erakusle, bandek herrigintzan izan duten garrantzia nabarmendu du.



Eguno Arabako Errioxa zer den azaltzeko ezinbesteko elementua dira musika bandak. Hamarkadaz hamarkada, eskualdeko musikaren motorea izan dira dozenaka lagunez osatutako musika taldeak. Bandek eskualdeko soziologian ere eragina izan dute, eta horiek izan duten lekua nabarmentzen ahalegindu da Eduardo Moreno (Guardia, 1971) musikari eta irakaslea *Más allá de las bandas de música de Rioja Alavesa* liburuan. "Leku askotan galtzen ari dira musika bandak, eta nik ohartarazpen txiki bat eman nahi izan dut lan honekin; agerikoa da herrigintzan izan duten garrantzia, eta pena litzateke zaintzen ez direlako galtzen uztea", adierazi du Morenok. Prozesio, kontzertu eta dantzaldiak ez dira falta inguruko herrietan, baina aurrera egingo badu, guztien elkarlana beharrezkoa izango dela uste du Guardiako musika eskolako zuzendariak. "Askotan egintzat jotzen da, musika bandak beti gure inguruan egon direlako, baina tarteka kasu egin eta hauspo pixka bat eman behar zaie".

Bederatzi musika banda daude egun eskualdean, eta 140 urte atzera egin behar da lehendabiziko taldeak aurkitzeko. Herritar gehienek irakurtzen ere ez zekitenean sortu ziren musika bandak, udaleko agintarien eta herritarren ekimenez, Morenok gogoratu

Testua: **Anakoz Amenabar.**

Goian, Guardiako musika banda, edadetuen egunean, 1920ko hamarkadan. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOIA.



Uztaila eta abuztuan, hainbat kontzertu prestatu ditu Guardiako bandak. E. MORENO

moduan. "Herrietan musika sustatzeko beharraz, instrumentuak erosi zituzten herritarrentzat; belaunaldi desberdinek partekatu dituzte horiek, eta, ezinbestean, herria egiten du horrek. Pentsamendu oso diferenteetako herritarrak elkartu ditu musikak". Guardian, esate baterako, 1881. urtetik ez diote musika jotzeari utzi; 36ko gerra igarota, berriz elkartu zen banda. "Bakoitzak pentsatzen zuena pentsatzen zuela, gerraren ostean berriz ere elkarbizitza posible izan zen. Hori da banden balio nagusia: konpartitu eta elkarbizitza".

Zein da hainbeste urtez musika bandek jarraitu eta sendo mantentzeko giltza, ordea? Arabako Errioxa sustrai tradizionalako eskualdea dela gogoratu du Morenok, eta horrek musika ondarea "ondo babestuta" izatea ekarri duela: "Mahastizaintza eta nekazaritzara loturiko lurraldea izateak tradizioekin lotura handia izatea dakar, arlo guztietan, eta horretan berebiziko garrantzia izan duela uste dut". Tradizio musikalaren arrastoen bila, XVII. mendera arte heldu daiteke eskualdean, orduko organo-jole eta musika kaperen berri ematen duten idatzizko dokumentuekin. "Erkidegoko organo ondare garrantzitsuenetako bat dugu Arabako Errioxan, eta ahaztuta dugu".

Emakumeak 80. hamarkadan

Nekazal giro kontserbadoreak musika bandei eusteko balio izan badu, arrazoi beragatik berandu arte ez zuten lekurik izan emakumeek udal musika bandetan. "Ziurrenik aurreiritzi ugariko gizartea zelako, kontserbadorea, ez zen emakumerik egon 1989. urtera arte", gogoratu du Morenok. Ruth Fernandez izan zen lehendabizikoa Guardiako bandan, eta ostean hasiko ziren Susana



Oingo Santa Cecilia musika banda, XX. mende hasieran. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

Zabala eta Itziar Ocariz Lantziegokoa, eta Izaskun Rubio eta Aintzane Prieto Bastidakoa, besteak beste; gaur egun, musikarien erdia baino gehiago dira emakumeak. "Gaur egun ez legoke bandarik emakumeengatik ez balitz; argi eta garbi".

Musikari guztiek egindako lana aitortu nahi du Eduardo Morenok liburuarekin, eta "erakutsi duten konpromisoa" nabarmendu du, ikusten ez den lana eta aitortzen ez den lana. "Bandak, abesbatzak, gaiteroak... aurkitzen badituzu herri batean, bizirik dagoen seinale. Herrian sinisten duten herritarrak daudela esan nahi du, ezer jaso gabe emateko prest dauden herritarrak dituela". Aurrerantzean ere bandak sendo mantentzeko, gazteak dira lehentasuna eta horiek erakartzeko lana egin behar dela dio. "Niri garai batean aukera ematen zidaten moduan, klarinete bat hartu eta bandan hasita, eskura jarri behar ditugu gazteentzako tresna guztiak".

Denok elkartuko dituen taldeak izan behar dira bandak, Morenoren arabera, gazte, heldu eta ideologia guztietakoak. "Elkar ulertzeko gunea izan behar da banda, herritar guztiak batuko dituen taldea. Horrela bakarrik izango du aurrera egiteko aukera". ■■■

ANTZERKI ESCOLA

- + HASTAPENA
- + GAZTEAK
- + TXIKIAK
- + ANTZERKI MUSIKALA
- + ANTZEZLEEN FORMAKUNTZA ...

www.escueladeteatro-tae.com
 945-284542 / 945-285645
 Errege-Erregina Katolikoak, 4
 @EscuelaTeatroVitoria

"Arabako lurralde asko ez daude ordezkaturik Batzar Nagusietan"

PEDRO ELOSEGI GONZALEZ DE GAMARRA ARABAKO BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARIA

Hasi berri den honekin bost legegintzaldi egingo ditu Pedro Elosegik (Gasteiz, 1960) Arabako legebiltzarrean, eta bigarren ezango da lehendakaria. Kuadrilla eta udalerrri guztien ordezkariak orekatuago bat lortzeko eztabaida lehenbailehen zabaldu behar dela uste du presidenteak: "bidezkoa da". Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**. Argazkiak: **Esti Lanao**.

Arabako Batzar Nagusiak osatu eta gutxira elkarrizketatu du ALEAK Pedro Elosegi erakunde lehendakaria, ahaldun nagusiaren inbestidura saioa baino lehen. Mahaiaren osaketaren bueltan egin zaizkion kritikak erantzuteko parada izan du, eta argi utzi du araudia eta joko-arauak bere alde dituela. Luze eta zabal hitz egin du, baita ere, herrialdeko legebiltzarren antolakuntzaz eta etorkizuneko erronkez. **Batzar Nagusietako lehendakaria izango zara beste behin. Nahita egindako aukera izan da?**

Beste urteetan bezala.

Irakurri dizut nonbait politika ez dela zure bizitza, ezta lanbide bat ere...

Nire bizimodua aldatu da ez dakit zenbat aldiz nire bizitzan zehar, baina momentu batean, duela hogeita lau urte, alderdian eskatu zidaten ea posible nuen Gasteizko Udaleko zerrendan joatea, eta baietz esan nuen. Ezustekoa izan zen gau hartan, eta nire bizitza aldatu zen. Abendu honetan, alderdiko primarioetan, kargua hartzea proposatu zidaten, eta alderdikide guztiek onartu zuten, hemen nago.

Erosoago zaude politikan edo kulturaren alorrean lan egin duzunean?

Bietan daude momentu onak eta momentu txarrak, ezta? Bi munduetan jakin behar duzu egoten, eta hutsegiteak kudeatzen ikasten duzu. Orain trebatuta nago politika munduan. Esaera zaharrak dioten moduan, gustatzen zaizuna egin behar duzu; eta egiten duzuna gustatzen ez bazaizu, ikasi eta jarrera aldatu.

Batzar Nagusiak eta bere dinamika herritarren artean ezagunak izateko erronka aspalditik dator. Zuk ere aipatu duzu helburu gisa. Zergatik axola dute horren gutxi bertako eztabaidek?

Beti esaten dut. Hedabideetan gure aurretik beste erakunde asko daudelako; telebistan, irratian, eta egunkarrietan astero daude berriak, egunero, Eusko Jaurlaritzarenak, Legebiltzarrenak, Diputazioarenak... eta hor, bosgarren postuan, Batzar Nagusiak daude. Garrantzitsua da, hala ere, arabarrek instituzioa ezagutzea, hemen gauza garrantzitsuak erabakitzen direlako, fiskalitatean esate baterako. Nork daki, adibidez, non dagoen eraikin hau? [Gasteizko Bizente Goikoetxea kaleko Arabako Batzar Nagusien egoitza].



Pedro Elozegi bigarren izango da Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria, EAJren eta PSERen botoei esker.

Horretan zerikusia du politikarekiko eta politikariekiko herritarren aldentzeak?

Beste erakundeekin ez da nabaritzen hori. Nik uste dut ez duela zerikusirik. Politikariak, azken batean, turko-buruak gara, gaizki dagoen guztia politikarien gauza da; baina politikariak ingeniariak bezala gara, batzuk onak eta beste batzuk txarrak. Nik ezagutzen ditudan politikari gehienak gauzak ondo egiteko daude. Mundu honetan, ordea, bi lanbide zokoratuak daude: politikariak eta funtzionarioak, eta nire kasuan, ni politikaria eta funtzionarioa naiz, kar, kar, kar.

Orekatua al da Batzar Nagusietan Arabako udalerriguztiek duten ordezkariatza?

Nire ustez ez da. Askotan esan dut.

Eta nola izan daiteke orekatuagoa?

Bi irizpide erabili behar dira. Hemen dagoen irizpidea soilik demografikoa da, zenbat biztanle hainbat ordezkari; eta hori ez da horrela toki gehienetan, edo baliteke hau izatea toki bakarra non irizpide hori bakarrik erabiltzen den.

Lehenengo irizpidea geografikoa izan behar da, eta bigarrena demografikoa; zer suposatzen du horrek? Geografikoki lurralde bakoitzak izango du ordezkari kopuru bat, eta gainera, biztanle

kopuruaren arabera, beste hainbat ordezkari gehiago izango ditu. Madrilgo Kongresuan irizpide geografikoa dago beti, eta, hortik aurrera, biztanleen arabera ordezkari bat, bi edo hiru gehiago dituzte lurraldeek.

Eusko Legebiltzarrean bezalako banaketa bat posible da Araban, alegia Kuadrilla guztiek batzarkide berdinak izatea Batzar Nagusietan?

Hor ere ez dago orekatua, baina ni ez naiz sartuko horretan. Nire arduratik diot Araban lurralde asko, kuadrilla asko, ez daudela ordezkariak; bost kuadrilla artean hautatzen dituzte zazpi batzarkide, eta hori gutxi da, eta gainera lurralde askok ordezkari bat bera ere ez dute.

Zabalduko da legegintzaldi honetan eztabaida hori?

Gure taldean horrela esan dugu askotan, kanpaina ere horrela esan dugu, eta lehenengo ekimena hori izango da. Onartuko da? Ez dakigu. Eusko Legebiltzarrerera helduko da? Ez dakigu. Baina eztabaidatuko da, ziur.

Eta adostasunetara iristeko aukerak ikusten dituzu?

Duela urte bat baino gehiago da gure taldeak ekimena aurkeztu zuela, eta ez zen onartu. Bazegoen beste talde bat ados zegoena, baina



Elosegik Batzar Nagusietako bere bulegoan hartu du ALEA.

"HORREN TALDE TXIKIA IZANIK, ELKARREKIN ARABAK EZ DU ESKUBIDERIK MAHAIAN EGOTEKO"

"ARAMAIOKO GURE TALDEKO HERRIKO JENDEAREKIN HARREMAN ESTUA DUT"

argudioa zen ez zela momentua, urtebete falta zelako hauteskundeetarako. Orain argudio hori ez dute. Ikusiko dugu zer gertatzen den, baina bidezkoa da.

Zeintzuk aurreikusten dituzu izango direla legegintzaldiko gai nagusiak?

Ba betikoak, ezta? kar, kar. Urtero lurraldeko aurrekontua eztabaidatzen da hemen, eta hori oso gutxi ateratzen da. Onartzen ez bada oihartzun gehiago izango du eztabaidak, baina onartzen bada, bo! Urtero arau fiskalen inguruan eztabaidatzen dugu, urtero Garoñari buruz hitz egiten genuen, Forondako H24ri buruz... Baina, hemen, ikono horietaz aparte egunero-egunero lan egiten dugu: arauak, mozioak, galderak, arabarren kezkak islatzen dituzten gai asko tratatzen dira hemen. Edozein parlamentutan bezala.

Kulturaren mundutik zatoz. Behar duen garrantzia ematen zaio kulturari herrialdean?

Galderan duzu erantzuna. Ezetz esan beharko dut, baina ez kulturaren mundutik natorrelako.

Kulturari ez zaio ematen behar duen garrantzia, ez soilik aisialdiarekin lotuta, baizik eta formakuntza aldetik, hezkuntzan, gizarteaz, oro har. Ni kulturaren mundutik nator, baina musikatik; kulturarentzat gutxi baldin badago, musikarentzat are gutxiago, eta musika herrikoia are gutxiago.

Batzar Nagusien osaketan lehen kritikak jaso dituzu.

Zaila zen bost talde egonik bost mahaikide egotea eta Elkarrekin Araba ere Mahaian izatea?

Zergatik?

Aniztasuna islatzearen?

Esan dute: Mahaian egon behar dira ordezkatura indar politiko guztiak. Lehenik eta behin, ez da beharrezkoa; gure araudiak ez du hori esaten, eta horrenbestez, horren talde txikia izanik ez dute eskubiderik Mahaian egoteko. Bigarrenik, osoko bilkuran gobernuak izan du gehiengo osoa; beraz, gobernuak sostengatzen duten taldeek zergatik uko egin behar diote gehiengo osoa Mahaian islatzeari? Hori horrela da, eta araudiak dio dioena. Esatea talde guztiak egon behar direla ordezkatura... joan gaitezke hor aurrean dugun Legebiltzarrera eta ikusiko dugu nola dauden gauzak, edo Madrilgo Kongresura... ba ez. Araudi bat dago eta hori da joko-araua. Oso argi daukat.

EAJko zinegotzia eta oposizioko burua ere izango zara Aramaion. Bateragarriak dira ardura biak?

Dudarik gabe. Zergatik ez? Bestela ez nintzen izango, azken finean lan egitea ona da. Nire asmoa da Aramaiora joatea gutxienez astean behin, eta horretarako denbora daukat.

Aramaio ezagutzen duzu?

Aramaiora askotan joaten nintzen txikitan, eta azken hiruzpalau hilabeteetan askoz gehiago egon eta murgildu naiz herrian. Gure taldeko herriko jendearekin ere harreman estua dut, ia-ia egunero hitz egiten dugu.

Bertako errealitatea eta herriko beharrak ezagutzen dituzu?

EAJko hauteskunde kanpainako programako oinarritzko puntuetan jaso ditugu bertako beharrak, eta ez dira asko, Aramaio oso herri txukuna baita, baina ur-araztegiarekin, adibidez, arazo handiak daude, eta ez dira erraz konpontzen. Horretaz gain, Aramaio da euskaraz aritzen den Arabako udalerririk bakarra, udalbatzak euskaraz egiten dituzte eta udal-funtzionamendu osoa ere euskaraz egiten da, eta horri eutsi behar zaio. ■■■

"Jendea ezagutzeko aukera eman dit musikak"

EAJk hala eskatuta salto egin zuen Pedro Elosegik musikatik politikara. Bietan dago gustura, baina musikak poztasun handia ematen diola nabarmendu du.

Olabide ikastolan ikasi zenuen eta ikastolako zuzendaria izan zinen. Gasteizek euskararen berreskuratzean egin duen ibilbidea lehen lerrotik bizi izan duzu. Asko dago egiteko oraindik?

Asko egin da. Ondo egin dira gauzak. Ni ikastolan hasi nintzenean inork ez zuen hitz egiten euskaraz Gasteizen, nire familian ere inork ez, baina aitona buruan zuen bilobak euskaldunak izan behar zirela, eta orain gure seme-alabak elkarren artean euskaraz mintzatzen dira. Prozesu bat da. Ez da izango bide erraza, asko egin behar da oraindik. Helburua gasteiztar guztiak euskara ezagutzea da, eta aukera edukitzea denek elkarren artean euskaraz hitz egiteko, edo gaztelaniaz hitz egiteko. Gaztelaniaz hitz egiteko aukera bermatuta dago, beraz helburua da euskaraz hitz egiteko aukera bermatzea. Lortuko dugu, ziur.

Medikuntza ikasi zenuen, baina ez duzu mediku bezala lan egin. Zergatik?

Aukera gutxi zegoen garai hartan, eta familiako egoerak ez zuen ahalbidetzen nik Gasteiztik alde egitea. Beraz,



E.LANAO

lehen erabakia izan zen hemen zerbait ikastea, eta hain justu urte horretan hasi ziren medikuntza ikasketak hemen. Sei urte egin nituen, eta seigarren urtean utzi nuen. Egun batean, Txagorritxutik atera nintzen eta pentsatu nuen: Ez naiz berriro itzuliko. Lotsa pixka bat ematen dit kontatzea baina ohorezko matrikula bat lortu eta handik bi egunetara utzi nuen medikuntza.

Ez ziren erakargarriak ikasketak?

Bai bai, gustuko dut, eta jarraitzen dut medikuntzari buruz irakurtzen, baina momentu horretatik aurrera erabaki nuen musika ikastea eta musika nire bizimodua izatea. Txikitatik nenbilen mundu horretan, txistularia nintzen...

Musiketxeako sortzailea eta zuzendaria izan zara, besteak beste. Zer eman dizu musikak?

Oso bizimodu polita eta alai, eta jendea ezagutzea, politikan baino gehiago. Ezagutzen dituzu ikasleak, musikariak, familiak. Udaletik Musiketxeara itzuli nintzenean, 2000. urtean, urrian, zortzi ikasle zeuden txistu irakaslerik ez zeukatenak, nire zain zeudelako. Zortzi horien artean oso musikari onak daude egun; horietako batek Aitor Gullon Elgarrestak Bilboko Kontserbatorioko fagot irakaslearen lanpostua atera berri du, eta mezu bat bidali nion oso harro nagoelako. Berehala ikusten da zeinek balio duen, eta Aitor lehenengo egunetik ikusi nuen maila profesionalean ibiliko zela. Badago beste bat ere Londresko orkestra batean dagoena. Musikaren bidez ezagutzen duzu jendea, eta jarraipena egiten diezu, familiak ere hurbiltzen zaizkizu. Oso polita da.

Web-orri bat ere baduzu, eta astero bideo-errezeta bat igotzen duzu.

Aste honetako bideo-errezeta ez dut egin, kar, kar. Nire familiak jatetxe bat izan zuen urte luzez, eta bertan lan egin nuen. Niretzat sukaldaritza nire familiarekin lotura da, asko gustatzen zait eta esaten dutenez, ondo kozinatzen dut. Bideo-errezetarena egun batean sortu zen ideia da, txorakeri bat bezala. Aste honetako errezeta izango da laurogeita bigarrena, urte eta erdi daramat egiten, igandero igandero.

Oporrak



OIER LLINAS VILLASANTE

KAZETARIA

Uda lanetik deskonektatzeko garai ezin hobea dela badakit. Eguneroko eginbeharrak pausatu, lankideei agur zoriontsu bat bota, eta, atzera begiratu barik, lantokia azkar batean utzi. Indarrak berreskuratzeko garaia heldu da, urte oso baten ostean berriz airea hartzeko unea. Eta deskonexioa erabatekoa izaten dela frogatzeko mugikorra alde batera utzi dut, berriz ere nire inguru hurbilean gertatzen denari erreparatuz. Aio sare sozialak, kaixo hondartza, eguzkia eta presarik gabeko garagardo freskoak.

Nire behatzen artean hondartzako harea sentitzen dudan bitartean, urte gogorra izan dela pentsatzen dut. Baina ez lanean, gaurkotasunaren jarraitzaile bezala baizik. Espainiako hauteskundeak, lurralde eta udaletarako bozak, ondorengo paktuak, etengabeko kanpaina eta, noski, uholde hau elikatzen duten ibaiadarrek: Otegi telebistan, Gorenaren espektakulua, San Ferminetako txupinazoa... Gezurra eta manipulazioa jaun eta jabe diren *reality show* bati begira gaudela dirudi askotan.

Honen aurrean nork esan dezake inoiz ez duela izan guztia pikutara bidaltzeko tentazioa? Itxaropena galdu eta mendira bizitzera joatea, graziaz gabeko broma bat dirudien gaurkotasunetik urrun. Latza izan da, bai. Horregatik, hain zuzen ere, ez dakit nik oporrak lanetik ala informaziotik hartzen ditudan. Egin beharreko deskonexio hau ez al den politikatik desintoxikazio bat. Garuna hustu eta garbitu hurrengo kurtsoan agintariak prestatuko dituztenak begi artean sartu baino lehen.

Horregatik, oporretan errealitate marko propioa eraikitzea gustatzen zait. Arau bakarria daukan markoa, alegia: besoa luzatu eta atzamar puntetatik urrunago dagoen guztia ez da existitzen. Horrela, egunotan, nire errealitateko pertsonaiak lagunak, bikotea, tabernetako terrazak eta liburuak izan ohi dira. Mugikorra non dudan ere ez galdetu, ez bainago ziur. Ni orain desintoxikazio garaian nago. Oporrak deitutako tratamendu hau bukatzen denean berriz bueltatuko naiz eguneroko errealitate politikora. Baina, momentuz, nire atzamar puntak tiraderan dudan bainujantziaren errealitatera heltzen dira bakarrik. Eta hortik, hondartzara. ■

**OPORRETAN
ERREALITATE MARKO
PROPIOA ERAIKITZEA
GUSTATZEN ZAIT;
DESINTOXIKAZIOA**

Araba euskalduna, eskola publikoaren eskutik

MAIDER RUIZ DE EGINO BERASATEGI ETA JOSE MANUEL MARTINEZ FERNANDEZ

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO GASTEIZKO PLATAFORMA

Urtero bezala, titularitate pribatuko ikastola kontzertatuek Araba Euskaraz jaia antolatu dute gure herrialdean beren proiektuetarako dirua biltzeko asmoarekin. Hezkuntza sistemak euskararen ezagutza eta transmisioa lortzeko, ezinbesteko lana betetzen duenez, aztertu ditzagun Araban gaur egun dugun sistema horren ezaugarri eta zehaztapenak.

Haur eta Lehen Hezkuntzari begira, hots, hasierako euskalduntze lana egiten duen etapari begira, Araban 58 eskola publiko daude eta 30 ikastetxe pribatu-konzertatu (Kristau Eskolakoak 16, 10 ikastola eta beste lau izaera ezberdinetakoak). Eskola publikoa sistemaren %61a da, irakaskuntza erlijiosoak eta beste lau ikastetxe horiek %28a osatzen dute, eta gainerako %11 ikastolek.

Banaketa geografikoari begira, 58 eskola publiko horietatik 32 Gasteizen daude (institutuak zenbatu gabe) eta 26 probintzian. Kristau Eskolako ikastetxe gehienak, 14, hiriburuan daude kokatuta (Aiaraldean daude beste biak). Hamar ikastoletatik, 2 baino ez daude Gasteizen. Herrialdean (Gasteiz alde batera utzita)



ARABAN SARE PUBLIKOA EKARPEN ERABAKIGARRIA EGITEN ARI DA EUSKARAREN ALORREAN

IKASTOLEK BERE LEKUA DUTE EUSKALDUNTZE BIDEAN, JAKINA, BAINA OSO LEKU TXIKIA

publikoaren eta pribatuaren arteko aldea oso handia da: %72 publikoa da eta %28 konzertatua. Arabako 18 herritan (Artziniega, Aiara, Okondo, Izarra, Zuia, Legutio, Aramaio, Zigoitia, Araia, Dulantzi, Iruña Oka, Maeztu, Kanpezu, Ribabellosa, Eltziego, Lantziego, Guardia eta Gaubea), eskola publikoa baino ez dago eta bertako umeak bertan euskalduntzen dira.

Hizkuntza ereduari errepatzen badiegu, hauexek Euskadiko Eskola Kontseiluak bere 2015-2017ko txostenean eman zituen

Arabako datuak: Eskola publikoan, D eredu nagusi azaltzen da (%75), eta B eta A ereduak hondarrekoak dira (%20,5 eta %4,9). Ikastetxe itunduetan, berriz, D eredu %24 baino ez da, B ereduak %68,6 handi bat hartzen du eta A ereduak %7,4 (ikastoletan D eredu %100ekoa da, noski).

Datu hauen ondorioak begi bistakoak dira: ikastolek bere lekua dute gure herrialdearen euskalduntze bidean, jakina, baina oso leku txikia (%11); Kristau Eskolak eta gainerakoek (%28) ez dute bermatzen beren ikasleek euskararen ezagutza nahikoa lortu dezaten (A eta B ereduak %76a osatzen dute!), ez dituzte, beraz, legeak agintzen dituen hizkuntza-helburuak betetzen, eta diskriminazio linguistikoa sustatzen dute, legea urratuz (hori guztia diru publikoarekin). Araban, Eskola Publikoa da euskalduntze lanaren puska handiena egiten duena, ikasleen %60 baino gehiago jasotzen duelako bere altzoan. Hemen Araban (eta EAEn ere), umeen euskalduntzea eskola publikoan egingo da edo ez da egingo.

Hauxe da errealitatea: Araban, sare publikoa ekarpen erabakigarria egiten ari da euskararen alorrean, inoiz egon den euskalduntzeko makinari eraginkorrena izanik. Gerora begira, jendartearen kohesiorako eta hizkuntzaren biziraupenerako Eskola Publikoa da bultzatu, lagundu eta zaindu behar dena bere baitan kokatzen baita euskararen etorkizuna.

BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

SAREAN

@ANAMENABAR

#FreeCarola

Hamazazpi egunez itsasoan ibili ostean, joan den larunbatean Lampedusako portuan baimenik gabe porturatzea erabaki zuen Carola Rackete kapitainak, Sea Watch ontzian zihoazen 42 migratzailearen egoera larria zela eta. Italiako Barne ministro Matteo Salvinik hura atxilotzeko agindua eman zuen, baina Italiako justiziak ez du deliturik antzeman kapitainak hartutako erabakietan. ■■■



ANE IRAZABAL
@Anelrazabal

Duela urtebete, Maltan ezagutu nuen Carola Rackete. Sea Watch ontzian Mediterraneora irteteko prest. "Etorkizunean ez dut neure buruaz lotsa sentitu nahi", esan zidan orduan. Gaur harro sentitu beharko litzateke. Bai horixe!



PATXI ETXANIZ
@patxitx

Carola Rackete iheslarien salbatzailea. Bizi berri baten bila bere herritik irten diren pertsonen zaindaria. Gure miresmena eta errespetu osoa dezu betirako. Besarkadak, animoak eta muxuak! Ez zaude bakarrik!



GAZTELUMENDI
@iPatxi

Itsasoa da gure borroka. Carola Rackete erdugarri. Superheroiak ez dira serietako pertsonaje izugarri horiek, komikietakoak... heroiak bizitzak salbatu eta bizitza arriskatzeko prest dauden militante solidarioak dira.



MARKEL KANTO
@markelkanto

Elkartasuna kriminalizatzea ez da EH-n bakarrik egiten. Bizitza erdigunera ekarri nahi dugunok zail daukagu. Carola Racketek ere ederki daki. Miresmena.



JON ALTOLAGIRRE
@jaltolagirre

Faxismoaren aurka eta gizarte eredu berri bat bilatzen dutenen alde, elkartasuna ezin baita inoiz delitu izan #FreeCarolaRackete



JOSEBA ALVAREZ
@JosebaAlvarez

Desobedientzia da bidea! Gora Carola! Biba zu! Elkartasunetik konpromisora! Eredu ederra! Inor ez da ilegala!

 IRUDITAN



Oasi txikia, Gasteizko alde zaharrean

Egunotako beroari aurre egiteko, eta 'Zaharraz harro' auzoko jaiak aitzaki hartuta, auzo igerilekua jarri zuten pasa den asteburuan Gasteizko Alde Zaharreko Aiztogile kalean. Zoruko jabearekin akordio batera iristea lortu zuten gunera sartutako gazteek, eta horrenbestez, goizetik iluntzera bitartean, igerilekuaz gozatzeko aukera izan zuten edonork. Goiko argazkian ageri den moduan, ostiralean, albistearen berri jakin bezain pronto, zenbait udaltzain bertaratu ziren igerilekura, baina egoeraren berri jaso ostean, berdinetan egoten utzi zieten auzokideei.

Argazkia: Zaharraz Harro.



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzioa@alea.eus



Cristina Olabarrieta ikasleak garatu du teknika berria. NURIA GONZALEZ / EHU

Ardoan iruzurra aurkitzeko bidea

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle batek ardo ondua eta ardo gaztea bereizteko sistema bat garatu du, botila ireki behar izan gabe. Botilan dauden gasen analisisan oinarritu dute metodologia berria.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

EHUko SGIker Analisisirako Arabako Zerbitzu Zentralak ardo botilaren kortxoak kendu behar izan gabe ardoaren lurrinak analizatzeko laginketa sistema bat garatu du. Modu horretan, balio handiko ardoetan iruzurrak atzemateko bidea zabaldu dute, botila bera ireki gabe, eta, hortaz, produktua alferrik hondatu behar izan gabe.

Laginketa sistema xiringa berezi batean oinarritzen da: horren bitartez, ardoaren eta kortxoaren artean geratzen den tartetik gasa erauzteko modua dago, kortxoak hondatu gabe. Behin erauzketa eginda, kortxoak ziligatzeko aukera ere badagoela adierazi du EHUk, ohar batean. Lagina atera ostean,

Gasen Kromatografia-Masen Espektrometria (GC-MS) izeneko teknika erabili dute, lurrin horien osaketa ezagutu aldera.

Prozesu hau Cristina Olabarrieta ikasleak garatu du, EHUko Analisi Forentseko Masterrean landutako tesina baten barruan. Haren asmoa da iruzurrak atzeman ahal izatea, eta horretarako ardo mota bakoitzaren ezaugarritze bat garatzen ari da.

ARDO BAKOITZAREN ADIERAZLE IZANGO DIREN KONPOSATUEN BILA IBILI DIRA, ETA AURKITU DITUZTE

Arras konplexua da ardoa, kimikaren ikuspuntutik: bertan 1.000 osagai lurrunkor baino gehiago identifikatu dira. Olabarrietaren asmoa da ezaugarri horietako batzuk identifikatzea, ardo mota bakoitzaren markatzaile gisa, eta modu horretan ardo desberdinak bereizi ahal izatea, gasen laginketa hutsarekin.

EHUk azaldu duenez, botilari kortxoak kentzen ez zaion bitartean, oreka kimiko bat eratzen da kortxoaren eta ardoaren arteko tartetaren, eta bertan dauden konposatu lurrunkorren analisisan oinarrituta, ardoari buruzko informazioa eskura daiteke: mahats mota, uzta, ekoizpen modua eta ardoaren jatorri izena aipatu dituzte.

Adierazleen bila

Ikerketa honen oinarriak jartzeko 22 ardo aukeratu dituzte: 11 ardo ondu eta 11 ardo gazte, eta bakoitzeko hiru analisi egin dituzte. Horrela, ardo bakoitzeko konposatu bereizgarriak identifikatzeko gai izan dira.

Orotara, 20 konposatu identifikatu dituzte, hala nola esterrak, zetonak, azidoak eta goi mailako alkoholak. Horietako asko ardo onduetan zein gazteetan berdinak direla ikusi dute, baina egiaztatu dute ontze prozesuaren arabera ere aldatzen direla.

Hortaz, ardo mota bakoitzaren adierazle modura erabil daitezkeen konposatuak bilatzeari ekin diote, eta aurkitu dituztela azaldu dute. Ardo gazteen kasuan, 3-Hidroxi-2-Butanona eta Butirolaktona dira adierazle horiek. Ardo onduen kasuan, berriz, beste adierazle argi bat aurkitu dute: Dietil Succinatoa izenekoak.

Emaitzak "aukera zabal baterako atean" irekitzen dituela nabarmendu dute.

Udarekin batera, mediku bakarra

Zanbranan, Berantevillan eta Urizaharrean mediku bakarra izango dute udan. Bastidan ere udako errefortzua kendu dute, eta 10.000 biztanle artatzeko mediku bakarra egongo dela salatu du ELAk.

ERREDAKZIOA ZANBRANA

Herrietan uda partean osasun arretan dauden murrizketak salatu dituzte Zanbranako, Berantevillako eta Urizaharreko alkateek. Izan ere, mediku bakarra izango da hiru udalerrientzat, eta, behar izanez gero, herri horietako gaixoak Bastidara edo Ribabellosara joateko proposatu die Osakidetzak. Ildo beretik, ELA sindikatuak salatu du Bastidako mediku titularra laguntzeko hartzen duten errefortzua kontratatze asmorik ez duela Osakidetzak: "Azpimarratzekoa da uztaila eta iraila bitartean Bastidako herria 1.500

biztanletik 10.000 biztanlera pasatzen dela. Beraz, 10.000 pertsona artatzeko mediku bakarra egongo litzateke".

Bi mediku, ordezkorik gabe

Zanbranak, Berantevillak eta Urizaharrak, Ribabellosarekin batera, osasun esparru bakarra osatzen dute, eta lau mediku dituzte, bat udalerrri bakoitzeko. Herritarrak astean bost egunez artatzen dituzte, 08:00etatik 15:00ak arte; erizain batek laguntzen du mediku bakoitza, astean birritan edo hirutan. Ribabellosak, berriz, mediku finkoa du, eta oporrak

edo bajak hartzen baldin baditu ordezeko bat kontratatzen du Osakidetzak; gainerako hiru herrietan, ordea, medikuek oporrak hartzen dituztenean, geratzen direnen artean antolatu behar dira kontsultak.

Alkateek azaldu dutenez, uda honetan bi medikuk epe berean hartuko dituzte oporrak, eta, horrenbestez, mediku bakarra izango da Berantevilla, Urizaharra eta Zanbranako gaixoak artatzeko. Osakidetzatik eman dieten irtenbide bakarra da Bastidara joatea edo bestela Ribabellosara.

Halere, Zanbrana, Berantevilla eta Urizaharretik Bastidara joaten diren gaixoez ere arazoak aurkituko dituzte behar bezalako osasun arreta jasotzeko. Izan ere, ELA sindikatuak salatu duenez, Osakidetza Arabako Errioxako arduradunek "ez dute asmorik azken hamar urtean, uda garaian, Bastidako mediku titularra laguntzeko egin den kontratazioa egiteko". Orain arte, arratsaldeko errefortzua arratsaldean sortutako larrialdiez arduratzen zen.



Bastidako mediku titularra laguntzeko hartzen duten errefortzua kontratatze asmorik ez du Osakidetzak. IREKIA

ESANAK



MAIDER MENDIZABAL
PILOTARIA

"Emakume pilotarien profesionalizazioa bultzatzeko ordua iritsi da"



HASIER ARRAIZ
IDAZLEA ETA POLITIKARI OHIA

"Emantzipaziorako egitasmo batek ezinbestekoa du gizarte kohesioa"



EDUARDO ANITUA
DENTISTA ETA IKERTZAILEA

"Zurrunga egitea zerbait ondo ez doan seinale da; arnasa hartzen ikasi behar da"

ZENBAKITAN

Lagunak

Setem Hego Haizeak, irailetik ekainera bitartean, Gasteizen antolatu dituen kontsumo arduratsuaren inguruko 25 jardueratan parte hartu duen pertsonen kopurua da ondokoa. Balio Faktoriaren programazioaren barruan egin dira ekimenak; hain justu, ohiko kontsumoak dakartzan eraginez sentsibilizatu eta esparru desberdinetan dauden alternatibak erakustea helburu duen programazioaren barruan. Guztira, hitzaldi, mahai-inguru, antzerki edo zine-forum bezalako 11 topaketa ireki eta 14 tailer eta ikastaro antolatu izan dira amaitu berri den ikasturtean.

800

119

Milioiak

Foru Ogasunak milioi bat eurotik gorako zorra dutenen zerrenda argitaratu berri du. Ez da berrikuntza handirik ageri, eta gehienetan lehenik ere agertzen ziren enpresak dira. Zehazki, 37 erakunde eta norbanako daude, eta guztien artean 119 milioitik gorako zorra pilatzen dute. Horieta asko dagoeneko desagertutako edo kiebra egoeran aitorituriko enpresak izanik, dirua berreskuratzea ezinezkotzat jotzen du Diputazioak.

9

Dendak

Antzinako liburuen azoka egingo da uztailaren 14ra arte Gasteizko Urrezko Zeledonen plazan. Aurten, honako liburu-dendak parte hartzen ari dira: El Cafetal (Gasteiz); Asilo del libro, Prim eta Torres de Valencia (Valentzia); Prólogo (Huesca); García Prieto (Madril); Maxtor (Valladolid) eta La Ela (Bartzelona). Urtero bezala, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo dira saltokiak zabalik.

Martxan da Euskarabentura gazte espedizioa

Euskal Herria zeharkatuko duen 798 kilometroko ibilaldia dute aurretik Euskarabentura gazte espedizioan parte hartzen ari diren 121 parte-hartzaileek. Pasa den astelehenean ekin zioten erronkari, Maulen. Ipar Euskal Herritik eta Nafarroatik ibili ostean, Arabara iritsiko dira hilaren 11n. Gesaltzan egingo dute lehen geldialdia.



Mauleko plazan ateratako talde argazkia. EUSKARABENTURA



Bidegorri berriaren irudia. GASTEIZKO UDALA

Bidegorri berria estreinatu du Legutioko Atea kaleak

Nafarroako Errege-Erreginen eta Zuiako Taldearen kaleen artean doa tarte berria. Trafikoamoteltzeko eta oinezkoen mugikortasuna hobetzeko neurriak jarri dira abian; tartean, bi bidegorri jarri dira, 2,40 metro zabal dutenak, bereziak eta bi noranzkorekin; horiek egiteko, trafiko-errail bana ezabatu da bi noranzkoetan. Autobusengeltokiak ere egokitu dira.

Euskaraldiaren simulakroa egingo dute Lautadan

2020ko Euskaraldiaren simulakro txiki bat egingo dute Lautadan, zazpi egunez: urriaren 21etik 27ra. 2018an bezala, ahobizi eta belarriprestek parte hartuko dute, eta edizio berri honetan entitateek sortuko dituzten arigune berrietako kide guztiekin. Simulakroan ez da izena eman behar, baina txapak banatuko dituzte urriaren 7tik aurrera.

Protesta gehiago iragarri dituzte Indesako langileek

Gutxieneko soldata baino ez dutela kobratzen eta lan zama handiak dituztela salatuzko, elkarretaratzea egin zuten pasa den larunbatean Indesako langileek, Gasteizko Loma Jeneralaren plazan. Protestan sindikatu guztien babesa izan zuten: ELA, LAB, UGT, CCOO, USO eta ESK. Irailean mobilizazio gehiago egingo dituztela iragarri dute.



Garbiketa, janaria prestatzea, lorezaintza eta bestelakoak eskaintzen ditu Indesak. LAB

Giltza eduki ezean, sakelakoa

Erdi Aroko Araba elkarteak bultzatuta, itxita dauden elizen barruko aldeak internet bidez ikusi ahal izateko egitasmoa da Ondare Irekia. Armentiaiko basilika da katalogoan sartu duten azken eraikina.

JUANMA GALLEGO

Artea eta ondarearekiko grina dutenek ondo dakite zer sentazio desatsegina den: aspaldi ikusi nahi den eraikin batera iritsi eta itxita aurkitzea. Batzuetan, herri txikietan bederen, badago bidea atakatik ateratzeko: herrian bertan galdetu eta elizako giltzak dituen auzokide baten erreferentzia eman ohi diote bisitariari. Baina, askotan, ez da posible giltzak eskuratzea. Arazoa biderkatzen da urrundik iritsitako bisitarien kasuan, horiek ez dutelako aukerarik beste egun batean bueltatzeko.

Egoera horri aurre egiteko, pixkanaka tresna bat osatzen ari dira Erdi Aroko Araba elkarteko kideak. Egitasmoak *Ondare irekia* du izena, eta datorren uztailan urtebete beteko du martxan. Hilabete hauetan guztietan elizen katalogo bitxia osatzen ibili dira. Sartu duten azkena Armentiaiko basilika izan da. Horrekin, orain arte bederatzi dira modu birtualean mundu guztiari irekitako elizak.

"Badira hainbat programa eliza horiek zuzenean bisitatzeko, adibidez Lautadan edo Gaubean, baina, beti ere, programa turistikoaren barruan, eta normalean ordutegi mugatuaren arabera. Baina gero eta bisitari gehiago daude; adibidez, Done Jakue bidea egiten dutenak", azaldu du programaren ardura duen



Sakelako telefonoaren nabigatzailea besterik ez da behar katalogoa ikusteko. ALEA

"ASKOTAN JENDEA KEXAKA ETORRI ZAIGU, ELIZAK BARRUTIK EZIN DITUZTELAKO IKUSI"

GORKA LPZ. DE MUNAIN, ERDI AROKO ARABA

Gorka Lopez de Munainek. Elkartean aspaldi konturatu ziren arazoaren tamainaz. "Askotan jendea kexaka etorri zaigu, esanez pena bat dela elizak barrutik ikusteko aukerarik ez izatea". Hortik abiatu zuten egitasmoa martxan jartzeko ideia, eta Erdi Aroko Arabako kideak Vital Fundazioarengana jo zuten, laguntza bila. "Funtsean, elizen kanpoaldean panel txiki batzuk jartzean datza kontua.

Gehiegizko arreta ez dute erakartzen, baina erraz aurkitzeko moduan jarrita daude". Panel horietan QR kodea aurkitzen dute bisitariak, eta sakelako telefonoarekin hori eskaneatzea besterik ez da egin behar. Zuzenean eliza horretako barrualdeak hiru dimentsiotan ikusteko aukera ematen du loturak, telefonoaren nabigatzailearen bitartez, aparteko beste aplikaziorik erabili behar izan gabe. QR kodeekin trebatuta ez daudenek www.alavamedieval.com/irekia helbidearen bitartez aurkitu ahal dute katalogoa.

Irudiez gain, bestelako informazioa aurkitzen dute erabiltzaileek. Fitxa guztiak eskema berdina dutela azaldu du Lopez de Munainek:



Armentia basilika da 'Ondare irekia' egitasmoan sartu duten azken eraikina. ALEA

"Aurkibide txiki bat dago, eta edukiak hiru hizkuntzetan daude, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Sarrera bat eta lauzpabost minutu inguruko bideo txiki bat ere badago. Funtsean, oinarritzko informazioaren laburpen bat egin nahi dugu bertan". Ez da erabili duten baliabide bakarra: 360 graduko irudiak ere sartu dituzte, tenpluen barrualdeak ondo ikusi ahal izateko.

Argazki zaharrak

Informazioa osatzeko, eraikinari buruzko bitxikeriaren bat sartzen saiatu dira, eta baita eraikin bakoitzaren antzinako argazkiak ere. "Horri garrantzi handia eman diogu, irudi horiek aukera ematen dutelako alderatzeko gaur egungo egoera eta iraganean zegoena".

Hortaz, eraikinaren ateetan bertan ez ezik, pixkanaka osatzen doan katalogoak munduko edozein lekutik Arabako elizen inguruko informazio osatua jasotzeko aukera ematen du. "Ideia da denborarekin eduki berriak

sartzea", gaineratu du Lopez de Munainek. Iaz Done Jakue bidearen lehen zati bat egin zuten, Zalduondotik Arkaiara doazen elizekin, eta Armentiarekin bigarren fasea hasi dute orain; momentuz, Gatzaga Buradonera arte luzatuko dute ibilbide birtuala. "Vital Fundazioaren laguntzarekin jarraitzen badugu, gure ideia da pixkanaka Arabako Ondarea jasoko duen datu base txukun bat osatzea", azaldu du Erdi Arabako kideak.

Azaldu duenez, edukiak online izateak abantaila dakar: ikerketak eta informazioak osatzen doazen heinean, eraikinei buruzko informazioa gaurkotzeko modua dago. Arabako ondarearen berri

PIXKANAKA OSATZEN ARI DEN KATALOGOAK AUKERA EMATEN DU INFORMAZIO GAURKOTUA IZATEKO

ematen duen Micaela Portillaren monumentuen katalogoa ekarri du gogora. "Bilduma horretako azken aleak nahiko gaurkotuta badaude ere, hasierakoak oso desfasatuta daude".

Nazioartean ondarea biltzen duten antzeko bildumekin estandar moduko bat osatzeko modua egongo litzateke? "Momentuz ez dugu planteatu, baina etorkizunean gustatuko litzaziguke antzeko beste proiektuekin elkarlana hastea. Adibidez, Europa mailan dagoen *Europeana* katalogoa dago, guztia zentralizatzen duena, Creative Commons lizentzia baten barruan".

Instituzioen inplikazioa izatea gustatuko litzaziekeela aitortu du adituak. "Proiektu honek benetako zentzua izango luke Arabako eliza gehienak jasota egongo balira, turismoari begirako ibilbideetan sartzeko, turismo aukera guztiak modu globalean eskaini ahal izateko: natura, gastronomia edota kultura, adibidez". ■■■

"Elikadura Jokabide Nahasteak ez dira 'umeen arazotxoak'"

NEGU KARLSSON IDAZLEA

ANAKOZ AMENABAR

Elikadura Jokabide Nahasteak izan dituen gazte baten esperientzia jasotzen du *Kg.* liburuak. Gaixotasun larri hau ezagutzeko "bidaia liburu bat" dela dio Negu Karlsson ezizena duen protagonistak. Hori baino gehiago ere bada, ordea; literatur genero ezberdinak uztartu eta gertakari ugariaren bilduma ere bada. Alea FM saioan izan da Negu Karlsson (Donostia, 1971), bere lehenengo liburuaren eskuan.

TCA edo Elikadura Jokabide Nahasteekin izandako esperientzia kontatzeko beharrak bultzatu zaitu liburu idaztera?

Liburu hau neurri unitate baten inguruan idatzitakoa da: kilogramoa. Gaixotasun honen teknizismotik urrundu nahi nuen, eta gizarte osoak ulertzeko moduko lana izatea. Elikadura Jokabide Nahasteak izan ditut 5 urtetik orain dela gutxi arte, eta kontatzeko beharra nuen. Nire bizitzaren zati handi bat tintara pasatu dut; letretara igarotzeko beharretik sortu da liburu hau, hainbatentzat baliagarri izan daitekeena.

Egitura berezia du liburuak, genero ezberdinak tartekatuta.

Nire helburua da liburuaren eskuetan duenak protagonista-ekin batera bidaia egitea. Horretarako, alegiazko istorioak daude, poesiak, Europatik egindako bidai baten esperientziak, amodio istorio bat. Nire bizitza osoaren errebasoa egiten du modu batera edo bestera.

"Haurra nintzenetik, harreman zuzena eta estua izan dut janariarekin. Siamesen modukoak izan gara, bata bestearengandik aldentu ezinik", diozu liburuaren aurkezpenean.

Hala da. Bost-sei bat urterekin konturatu nintzen harreman estua nuela janariarekin. Beti esaten dut bikiak baino gehiago gabela, siamesak bezala, eta apenas bereizten gabela. Etxean janari asko jatera behartzen ninduten, desegituratutako familia baten parte, eta eskolan jazarpena jasotzen nuen, mutil isila, potoloa eta ezberdina nintzelako. Horrek guztiak Elikadura Jokabide Nahasteak piztu zituen nire buruan, sintomatologia nabarmendu baino lehenago.

Hamazazpi urterekin jateari uztea erabaki zenuen.


Plan bat antolatu nuen eta jateari utzi nion. "Gaurtik aurrera ez dizut kasurik egingo", esan nion amari, eta nolabaiteko estatu kolpea eman nuen etxean. Nire burua potoloa ikusten nuen ispiluan, eta hilabete terdi batean 85 kilo izatetik 52 izatera pasa nintzen.

Laguntza eske jo zenuen urte batzuen ostean.

Bai, beharrezkoa izan zen erabaki hori. Gaur egun nire emaztea denarekin terapiara joatea erabaki nuen, eta han emozioen kudeaketa arazo bat nuela onartu nuen, arazo fisikoekin batera; umea nintzenetik garatutako gaixotasuna. Hitza eta testuekin, pixkanaka-pixkanaka, gaixotasuna normalizatu, ulertu eta garaitzen joan naiz.

Familiak nola bizi izan du gaixotasuna?

Familiak beti sufritzen du, askotan ez dakielako zer egin. Blokeo momentu bat izan zuen. Liburu honekin, baina, ez dut errudun edo garailerik bilatzen, lortutakoa nabarmendu nahi dut.



Vive Libro argialetxearekin argitaratu du liburua Negu Karlssonek. ESTI LANAO

Pasarte gogorrek daude liburuan, besteak beste, zure ikaskideei bidaltzen diezun mezu bat.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan jasandakoak oso sartuta dauzkat buruan, baina gaur egun beste modu batera ikusten ditut. Mezu positiboa bidali nahi diet, nirekin egindakoa beste haurrek jasan ez dezaten. **Erakundeei ere mezu bat bidali diezu, informaziorako tresnak jar ditzaten eskatzeko.**

Bai, batez ere prebentzio lanerako. Elikadura Jokabide Nahasteak ez dira "umeen arazotxoak", eta Lehen Hezkuntzan prebentzio lanak

"GAIXOTASUN KONPLEXUA DA, ETA LEHEN HEZKUNTZAN PREBENTZIO LANA GARRANTZITSUA DA"

egitea oso garrantzitsua da. Saltzen digutena baino gaixotasun konplexuagoa dela ulertu behar dute herritarrek, eta horretan eragile guztiek parte hartu behar dutela. **Norentzat idatzi duzu liburua?** Denentzat. Irakurleari gomendatzen diodan baliabide

bat da; gaixotasun honi buruz ez dakienarentzat hiztegitxo bat. Jendeak asko sufritzen du gaixotasun honekin, baina lorpenak ere badaude eta horiek azpimarratu behar dira; uste dut horiek lagungarri izan daitezkeela. Baina ez da gaixotasun liburu bat bakarrik, esperientzia bidai bat da. Bidai gida bat ere izan daiteke; turismoa ikasi nuen nik, eta liburu hau praktikan jartzeko modua izan da. Frantzia, Suedia, Belgika edota Ingalaterratik bidaiatxo bat egiteko hainbat apunte jasotzen ditut. ■■■



Parral taberna

**menu begetarianoa eta gosariak
asteazkenean zehar - asteburuetan razioak
astearteko aktuzio kulturalak**

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4

TLF 945276433 GASTEIZ-ARABAKI

GEU elkarte, boluntario bila

Aurten, abuztuaren 2an zabalduko ditu ateak txosnak, eta zortzi egunetan musikaz, dantzaz, giro alai eta euskaldunez beteko du Aihotz plaza; urtero moduan, 200 bat boluntario ibiliko dira txosnan laguntzen.



GEU txosna Aihotz plazan izango da aurtengo Andre Maria Zuriaren jaietan ere. ALEA

ERREDAKZIOA ARABA

Zortzigarren urtez arduratuko da GEU elkarte, Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietan, Aihotz plazako txosna eta bertako egitaraua aurrera eramateaz. Gainera, ohiko eskaintzaz gain, bi egunetako egitarau propioa prestatu du aurten festak hasi aurretik. Hala, abuztuaren 2an, Aihotz Txotx eguna izango da, eta sagardoa, txorizoa, bakailao tortilla eta dantza izango dira protagonistak.

Jaia 18:00etan hasiko da, umeei zuzendutako ipuin kontalariekin, Aitor Vinagret eta Nerea Ariznabarretaren eskutik. Hori amaitutakoan, 19:30ean,

urtero GEU elkarteak ematen duen *GEUre saria* banatuko dute. "Aurten, Gasteizko auzo ezberdinetako euskara taldeak omenduko ditugu, euskararen alde egindako lana eskertzeko", azaldu dute elkarteko lagunek. Jarraian, dantza plaza izango da, Azido Folkloriko dantza taldearekin.

Abuztuaren 3an, berriz, musika izango da protagonista Musikaihotz ekimenarekin.

**OHIKO ESKAINTZAZ
GAIN, BI EGUNEKO
EGITARAU PRESTATU
DU FESTEN AURRETIK**

19:00etan Orbanak taldeak emango dio hasiera jaialdiari, eta ostean Konpost taldeak joko du; eguna amaitzeko, Izaki Gardenak taldearekin gozatzeko parada izango dute bertaratzin direnek.

Urtero bezala, 200 lagun inguru ibiliko dira GEU txosnan laguntzen; barran zein sukaldean, boluntario bezala, goiz, arratsalde eta gaueko txandak egiten. Txandaren bat bete nahi duen edonor elkartearekin jarri behar da harremanetan; *geutxosna@gmail.com* helbide elektronikora bidali dezake mezua, edo 688 81 91 18 telefono zenbakira, *whatsapp* bidez. ■

Sagardo usaina du Gasteizek

Uztailaren 20an I. Euskal Sagardo Araba jaialdia egingo dute Aihotz plazan; jai giroan, Arabako hiru sagardotegitako zein Gipuzkoako beste bosten sagardoa dastatzeko aukera izango da egun osoan.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak antolatuta, I. Euskal Sagardo Araba izango da uztailaren 20an, Gasteizko Aihotz plazan. Bertan, Arabako zein Gipuzkoako sagardotegietako pasa den urteko sagardoa probatzeko aukera izango da; gorputz eta izaera handiko sagardoak dira, lurrintsuak eta txinparta ederrekoak.

Horrez gain, dastatze azkarrak ere antolatuko dira, Mikel

Garaizabal enologoaren eskutik. Aihotz plazara hurbiltzen direnek kopa bat eta bost tiket hartu ahal izango dituzte bost euroen truke. Sagardoaz gain, Basatxerri pintxoak, Idiazabal gazta eta bestelako hainbat produktu ere izango dituzte aukeran honako ordutegian: goizean, 12:00etatik 14:30era bitartean; eta arratsaldean, 19:00etatik 21:30era.

Musika emanaldiak girotuko dute jaialdia, eta baita Garaizabalen dastatzeek ere.

Denera, zortzi sagardotegik parte hartuko dute: Kuartango (Kuartango), Iturrieta (Aramaio) eta Askartza (Trebiñu) arabarrek, eta Hernaniko Akarregik, Altxuetak, Itxasburuk nahiz Zelaiak eta Astigarragako Lizeagak.

Uztailaren 20an lehenengo aldiz ospatuko den jaialdi honekin Jatorri Deiturak biltzen duena ezagutarazi nahi du Euskal Sagardoak: hain justu ere, %100 bertako sagarrez egindako sagardoak, eta kalitate bermea berekin dutenak. ■■■



ERAKUSKETAK

Juan Carlos Meana
NOS[YO]OTROS
2019.06.07 > 2019.09.15

Javier Hernández
Landazabal

**De lo perdido
y lo recuperado**
2019.06.07 > 2019.09.15

**Queda mucho
pasado por delante.**
Oroi
Artium Bilduma
>2020.01.05

JARDUERAK

ERAKUSKETEN BISITA
GIDATUAK
Bi hizkuntzatan: euskaraz eta gaztelaniaz
Asteazkenero, Larunbatero, Igandero.
11:30 Artium osorik

LANTEGIA
Artium lorategia. Andrea Ríos-ekin
07 | 3, 10 11:30 > 13:00

DANZÁLAVA
Katie Duck, Cage - ALTRASTE Danza
Doako jarduera
07 | 05 20:00

ZINELEKU
Proiektzioa eta topaketa bereziak
Doako jarduera. + info www.zineleku.org
07 | 16, 17, 19, 20, 22, 25

HILEKO PROPOSAMENA
Liburutegian
Zinema dokumentala

Argibide gehiago:
www.artium.org

Sahararren ametsak, iruditan

Tindufeko iheslari-esparruetako lau ikastetxetan jasotako argazkiak bildu ditu Nuria Gonzalez fotokazetari gasteiztarrak erakusketa batean. Besteak beste, giza eskubideetan formazioa jasotzen ari dira gazte horiek.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Mundubat Fundazioaren eskutik, eta uztailearen 28ra arte, *Zutik hauts eta hondar artean* izeneko erakusketa martxan jarri dute Vital Fundazioa erakusketa aretoan. Bilduman Nuria Gonzalez fotokazetari gasteiztarrak 2017 eta 2019 bitartean Tindufeko (Aljeria) iheslari-esparruetan jasotako irudiak daude ikusgai.

"Bere ametsak egia bilakatzeko borrokatzen ari den gazteria sahararraren esperientzia" dokumentatu nahi izan du Gonzalezek, Vital Fundazioak zabaldutako ohar baten arabera. Irudi horien bitartez hamabost gazteren istorioa kontatu du argazkilariak. "Euren ikasketak formalak egiten ari diren bitartean, giza eskubideetan formazioa hartzen ari dira", haien eskubideak "defendatu eta aldarrikatu" ahal izateko. "Horretarako, gazteak hainbat formazio prozesu jasotzen ari dira, tartean giza eskubideak eta bakearen kultura, pedagogia giza eskubideetan eta komunikabideetan espezializatutako prestakuntza".

EHUn kazetaritza ikasketak bukatu ondoren, Nuria Gonzalez Londresera joan zen, argazkilaritza ikastera. Hamar urtez El Correo eta El Mundo egunkarietarako lan egin zuen. 2013tik freelance gisa dihardu,



2017-2019 tartean Tindufen hartutako irudiez osatuta dago erakusketa. MONICA GONZALEZ



Ohiko ikasketez gain, giza eskubideetan formazioa jasotzen ari dira gazteak. M. GONZALEZ

argazki-lan komertzialak eta giza eskubideen arloko proiektu dokumentalak uztartuta. Aljerian egindako egonaldi hauetaz gain, Palestinan ere egondakoa da Gonzalez, bertako errealitatea islatu nahian.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzaz egin dute proiektua, "sahararren errealitatea euskal

herritarrei" hurbiltzeko asmoz. Erakusketa honekin batera, Mundubat Fundazioak plataforma interaktiboa sortu berri du, www.saharaconderechos.org webgunean. Bertan, Marokoren okupazioaren ondorioz Saharan egon diren giza eskubideen urraketen testigantzak bildu dituzte, gazte sahararrek beraiek kontatuta. ■

Ameskoara zubia

GURE BAZTERRAK



Kontrasta

Kuadrilla: Mendialdea.

Udalerrria: Harana.

Biztanleak: 59 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Agurain eta Kontrasta artean Lamikela izeneko harkaitz azpiko aterpe bat dago; lamien babesa omen da.

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE
ARGAZKIA: ETXABURU

Erdi Aroko Arabako herri garrantzitsuenen artean dago Mendialdeko Harana udalerrian dagoen Kontrasta. Izan ere, 1256. urtean hiribildu izendatu zuen Alfonso X. erregeak, Nafarroako muga indartzeko asmoarekin. Gasteizko Forua eman zion herriari, gainera, eta horri esker Kontrastako biztanleek ez zuten zergarik ordaindu behar. Harana bailara eta Nafarroako Ameskoa eskualdeen arteko zubia da Kontrasta.

Historiako garai desberdinetan, Nafarroako eta Gaztelako erresumen menpe egon zen herria, eta bandokideen liskarretan Lazkaoko jauntxoek dorretxea eraiki zuten bertan. Gipuzkoako oinaztarren talde boteretsuaren parte ziren lazkaotarrak, eta jauntxo horien gehiegikerien eta abusuen kontra borrokatzeko sortu zen hain zuzen Arabako Kofradia.

Azkenik, 1479. urtean, Arabako Kofradiako partaideek Kontrastako lazkaotarren dorretxea erasotu, Lazkaoko jauntxoa akatu eta dorretxeari sua eman zioten. XVIII. mendean, berriz, dorretxearen gainean jauregi bat eraiki nahi izan zuten lazkaotarren oinordekoek, baina azkenean eraikina abandonatu, eta suntsitu zen.



Harresituta dago herria, eta ondare arkitektoniko ederra gorde du. Hala, iparraldean, dorretxe bat dago eta hegoaldean, berriz, gaztelu baten gainean eraikitako Deikundeko Andre Mariaren eliza-gotorlekua. Gainera, harresia- ren parte handi bat gorde da, nahiz eta herriko etxeak horretara atxiki dituzten. Herrira sartzeko bi arku eder daude.

Kontrastatik gertu, Elizmendiko basiliza dago. XVI. mendean zapi basiliza izan zituen herriak, baina gaur egun nekropoli erromatar baten hilerriekin partzialki eraikitako tenplu bitxi honek bakarrik dirau. Elizmendi tenplu erromanikoa izan zen baina egungo eraikuntza batez ere Erdi Aro ostekoa da. Basilizaren ondoan, hegoaldean, Erdi Aroko hilobi kristauen gorpuzkiak daude. Ingurune menditsua da eta baso ederraz inguratuta dago, eta ibilbide ugari egin daitezke bertatik: Bide Sakanen Ibilbidea edo Harana Bailarako Ibilbidea, besteak beste.

EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Arnas-aparatua

EGILEA: BARRUTIA IKASTOLA 6. MAILA

Eskulan honekin arnas-aparatuaren funtzionamendua nolakoa den ikusiko dugu, eta horretarako hainbat material birziklatuko ditugu.

Materialak

- Plastikozko botila txikia.
- Gomazko eskularru bat.
- Bi puxika arrosa.
- Zinta itsaskorra.
- Lastotxo bat.

Nola egin

1. Botilaren ipurdia moztuko dugu.

2. Botilaren tapoiaren erdialdean zulo bat egingo dugu.

3. Lastotxoak moztuko ditugu: Bi zati 5 bat zentimetrokoak eta beste bat 10ekoa. Luzeenaren puntan bi mozketa egingo ditugu diagonalean bi aldeetan.

4. Lastotxo luzea trakea izango balitz bezala erabiliko dugu eta motzagoak direnak bronkioak balira bezala. Hauek zinta iragaizgaitzarekin itsatsiko ditugu.

5. Bi puxiken ahokoa moztuko dugu; 2 zentimetro ingurukoa.

6. "Bronkioen" bukaeran itsatsiko ditugu. Hori guztia tapoian egin dugun zuloan sartuko dugu eta tapoi bat bezala itxiko dugu. Tapoian itsatsiko dugu.

7. Eskularru bat botilaren behealdean jarriko dugu.

8. Puxikatik tira egin eta "birikak" puztuko dira.



1



2



3



4



5

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak



Propagandhi, Adrenalized eta La Armada kontzertuan Bi sarrera solte

Propagandhi, Adrenalized eta La Armada musika taldeek kontzertua eskainiko dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan uztailaren 30ean (asteartea), 21:00etan. ALEAk bi sarrera solte zozkatuko ditu. Parte hartu uztailaren 9a baino lehen; uztailaren 12ko aldizkarian argitaratuko ditugu irabazleen izenak.



GoPro motako kamera [ZOZKETA IREKIA]

GoPro motako kamera urperagarria. Kirol eta aisialdi jardueretarako diseinatuta (mendia, bizikleta, korrika...) eta wifi konexioduna. Zozketan parte hartzeko, eman izena uztailaren 9a baino lehen. Uztailaren 12ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

OHARRA: Bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA Uztailaren 5etik 11ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Eskean Kristo

Kortxeak eta Krispetak zikloaren barruan. 'Orion. The man who would be king' pelikularekin batera.
Ostirala 5, 21:30ean, Falerina tabernan.

ELTZIEGO Kresala

Dantzaldia, herriko jaien barruan.
Ostirala 5, 24:30ean, plazan nagusian.

GASTEIZ Harresian Zulo

Adurtzako jaien barruan.
Larunbata 6, 22:00etan.

ARAIA Joselu Anaiak

Herriko jaien barruan.
Igandea 7, 24:00etan, plazan.

DANTZA

ARAMAIO Dantza plaza

Ertzak taldearen eskutik. Aurretik, ikuskizuna eskainiko dute.
Igandea 7, 20:30ean, plazan.

HAURRAK

LAUDIO 'Muxua' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan saioa.
Ostirala 5, 18:00etan, Aldai plazan.

GASTEIZ 'Bat, bi, hiru...magia' ikuskizuna

Sun magoaren ikuskizuna.
Ostirala 5, 19:30ean, Ibaiondo gizarte etxean.



NINA COYOTE

ARAMAIO Niña Coyote eta Chico Tornado

Herriko jaietako hasiera emateko, kontzertua emango du Niña Coyote eta Chico Tornado bikote donostiarrak, Rukula eta Brigada de Loko taldeekin batera. Plazan, berriz, erromeria izango dute.
Ostirala 5, 24:00etan, txosnagunean.

ARAMAIO 'Up!'

Xabi Larrearen ikuskizuna. Zirkua eta magia batzen dituen saioa.
Astelehena 8, 12:30ean, plazan.

GASTEIZ 'Jule' antzerkia

Hortzmuga taldearekin. Publiko guztientzat. Fantasia eta irudimena batzen dituen ikuskizuna.
Astearte 9, 19:30ean, Zabalganeko gizarte etxean.

GASTEIZ Altxorren bila

Zabalgana Euskara Taldeak antolatutako jarduera. Familian jolasteko ekintza.
Asteazkena 10, 17:30ean, Buradon Gatzaga parkean.

BESTELAKOAK

OKONDO Txakolin Jaia

Arabako txakolin dastatzea, haurrentzako jolasak eta beste hainbat jarduera izango dira.
Larunbata 6, 12:00etatik aurrera.

Jimmy jazz gasteiz **UZTAILA**

Lr. 6 **DJ LORO**

Ar. 30 **PROPAGANDHI**
+ ADRENALIZED + LA ARMADA

IRAILA / URRIA

THE MOVEMENT + BUSTER SHUFFLE // ACHTUNG BABIES - U2 TRIBUTOA
SAUROM "UN VIAJE ÚNICO" // ESKORZO // THE CHRIS SLADE TIMELINE
ARETHA SOUL DIVAS & THE SILVERBACKS // EL REND RENARDO
FAMILIARENGAKO ROCKA, RAMONES EZAGUTUZ // MORGAN

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

uztailak **20** de julio

euskal sagardo araba Gasteizen



hazi



gasteiz on



LABORAL
KUTXA



Goiza/Mañana 12:00-14:30 • Arratsaldea/Tarde 19:00-21:30

Aihotz Plaza / Plaza Machete

Euskal Sagardo dastatze gidatuak Mikel Garaizabalen eskutik
Catas guiadas de Euskal Sagardo, de la mano de Mikel Garaizabal

BERTAKO PRODUKTU
PINTXOAK, MUSIKA,
KONTZERTUAK...

PINCHOS DE
PRODUCTO LOCAL,
MÚSICA, CONCIERTOS...

• **KUARTANGO** Kuartango • **ITURRIETA** Aramaio • **TREBIÑU** Trebiño • **AKARREGI** Hernani
• **ALTZUETA** Hernani • **ITXASBURU** Hernani • **LIZEAGA** Astigarraga • **ZELAIA** Hernani





BA AL ZENEKIEN...

Olio litro batek 1.000 litro
uretik gora kutsatzen du,
eta bertan bizi diren izaki
bizidunak kaltetzen ditu,
heriotza eragiteraino.

BIRZIKLA EZAZU SUKALDEKO OLIO ERABILIA!

118

**edukiontzi
hiri osoan**